



Ritxi Lizartza

Eraso euskara eta euskal kulturaren aurka: lohitu, zer edo zer geratuko da eta

Aurreko urteko kronikaren haritik, arlo honetan beste kapitulu bat baizik ez dute osatzen jarraian aipatuko ditudan berriak.

Bi bide erabili izan dira euskaldunon hizkuntza eta kultura kriminalizatu eta zigortzeko: bide judiziala, batez ere Baltasar Garzon epaileak bideratua, euskal kulturaren diharduten hainbat sustrai ETaren jarduerarekin lotzeko; eta bide politikoa, nabarmena batez ere Nafarroan, baina baita Araban eta Ipar Euskal Herrian ere.

Bide judizialari begira, *Egin* argitaratzen zuen Orain SA enpresarekin harremanak izan eta haren deskapitalizazioan lagundu izana leporatu zaio Zabaltzen argitalpen eta banaketa etxeari. Garzonek aukeratutako moduak, ordea, asmoa Zabaltzen bera kriminalizatzea zela erakusten du: merkataritza erroldan lor zitezkeen datuak eskuratze-ko enpresan egindako zazpi orduko miaketan lortu izana, urtarrilean egindako polizia operazioaz geroztik, hamar hilabeteen enpresa hori —eta enpresa multzoko gainerakoak ere bai— susmopean eduki izana eta iritzi publikoaren aurrean enpresa horrek arrazoirik gabe jasan duen desakreditazioa. Ikerketa egin ostean, delitu aztarnarik ez.

AEKren kasuan, berriz, Garzonen helburua AEKren jardueran terrorismo zantzuak topatzea izaki, iazko udazken aldera, 19/98 sumarioaren barnean, ETaren finantza sarearen barruan egotea leporatu zion Espainiako Entzutegi Nazionalak AEKri, Garzonen beraren aginduz. Diru-kontu guztiak blokeatu, irakasleak soldatarik gabe utzi, euskalduntzea eta alfabetatzea helburu dituen erakunde bat susmopean jarri... baina emaitza: Manuel de los Santos Alvarez administratzaile judizialak azterketa sakona

eginik —nork pentsa dezake Garzonek berak eskatutako administratzaileak hala egingo ez zuenik— diru kontuetan irregulartasunik ez dagoela esan zuen.

Beste ahalegin bat, *Gara* eta *Euskaldunon Egunkaria* auzipetu eta ixteko bidean, ETako kideei elkarrizketa egin izanagatik terrorismoaren apologia egiteaz akusatzea. Bide honetan, beste era bateko laguntzarik ere izan du Madrillgo Gobernuak, *La Vanguardia* egunkariak berak salatu baitzuen bere orrialdeotan, Guardia Zibilaren txosten bat aipatuz, *Euskaldunon Egunkaria*-k ETaren diru kontuekin zerikusia zuela, beste hogeit bat argitaletzek osatzen omen duten taldearen baitan.

Azken batean, sokatik tiraka, helburua Eusko Jaurlaritza bera da, terroristekin zerikusia omen duten kultur eragile horiei dirulaguntzak eman izanagatik.

Bide politikoari begira, UPNk eta Nafarroako Gobernuak —Miguel Sanzek ederki ordezkatuak, zurituak eta bideratuak— erakutsia zuten euskal kulturari dioten higuina, ezinikusia eta gorrotoa. Denon mesederako ziren bide-seinale elebidunak espainiera hutsean ager zitezenez dirua xahutzeko prest dagoen politikari talde batengandik ezin espero ekintza hori asmo hutsen errebindikapena besterik ez izatea. Terrorismo kulturala edo terrorismoaren kultura aplikatu du UPNk aurrean euskal kutsua edo euskal kulturarekin lotura duen edozein eragileren aurka. Eta, eraso orokorra dela erakusteko frogarik onena, Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntza bezalako erakunde susmagariak urte luzetan jasotako dirulaguntzak (ez da ahaztu behar Nafarroako Diputazioak hartu zuela parte hasieratik —Hego Euskal Herriko beste hiru Diputazioekin batera— bi erakundeon sorreran orain 80 bat urte, 1918an Eusko Ikaskuntza eta 1919an Euskaltzaindia) barregarriak izatea, orain bi urteko datuekin konparatuz gero, iaz ere jaitsiera nabarmenak izan baitzituzten euskalgintzako sektore guztiek Nafarroan.

NUPen euskaraz ikasteko aukera eskasa zen, baina irailan hasi zen ikasturte berrian urriagotu egin dira aukerak, Nafarroako Gobernuak hala aginduta. Komunikabideei dagokienez, barre garria dirudi erdarazko komuni-

kabide guztiz ahaltsuei euskaraz argitaratzen dituzten aitakia orrialdeengatik dirulaguntzak bikoiztu izanak, bizi-raupena inola ere ziurtaturik ez duten euskara hutsezkoiei murriztapen zorrotza ezarri zaien bitartean. *Euskaldunon Egunkaria*-ren *Nafarkaria* gehigarri beteranoak ez du sosik jaso, hamar urteko ibilbidean nafarrentzat erreferentzia eta informazio iturri baliagarria izan bada ere. *Nabarra* aldizkariak eta beste hainbat herri aldizkarik ere ez dute laguntzarik jaso. Azken-azkena, Nafarroako Gobernuak Durangoko Euskal liburu eta Diskoaren Azokan parte ez hartzeko harturiko erabakia da. Nafarroako administrazioaren langile hautaketetarako prozesuetan alemanak euskarak berak baino puntuazio gehiago merezi izatea, edo gero eta administrazio gutxiagotan lanpostuaren profilean euskalduna ere izatea ez eskatzea, harritu eta tristetzeko moduko berri txarrak dira.

Neurri hauek denak ikusita, badirudi nafar agintariei kontu garrantzitsu samar bat ahaztu zaiela: beraiek nafar guztien agintariak dira, ez beren moduan pentsatzen dutenenak bakarrik.

Alfonso Alonso Gasteizko alkateak ere estrategia bera erabili du, beste jomuga batzuen artean, euskal aldizkariekin, *Geu Gasteiz* adibidez: laguntzak murriztu edo ukatzea. Eta gizarte integratu eta elebiduna izan dezagun, Alonsoren iritziz, zer hobe D eredia kendu eta haurrek euskaraz eta espainieraz ikastea baino! Lotsarik ez!

Ondorioak, kezkatzeko modukoak. Bide judizialaren ondorioak oso larriak izan dira. Zabaltzen, AEK, *Euskaldunon Egunkaria* eta beste hainbat euskal eragileren kultur jarduera zuzena eraso gezurti, faltsu eta justiziarik gabekoen bidez lohitzea, horrela, euskalgintzaren parte handi bat ere iritzi publikoaren aurrean terrorismoaren susmopean jarriz. Baina, nork epaituko du Garzon epailea, barrabaskeria horiek egiteagatik?

Bide politikoarenak ere bai. UPN-PPko politikariek ez baitute kontuan hartzen nagusigoa duten lekuetako —Nafarroa eta Gasteiz, batez ere— biztanleen nahia, eskola-matrikulazioan, kulturaren kontsumoan eta euskaraz egiteko erabakian argi eta garbi erakutsia. Kasu honetan are larria

goa da, UPNk parlamentuan erabateko nagusitasuna ez izanik, isilik geratu diren beste alderdi batzuen onespena izan duelako.

Baina okerrena oraindik ere etortzeko egon daitekeela susmatzeak burumakur utzi ditu euskalgintzan dihardutenak. Izan ere, tamalez, nork ez ditzake asma, euskal kultura errudun bihurtzeko garaian, zeintzuk izango diren epaile espainiar independenteen hurrengo jomugak? 2002ko euskal kulturaren errepassoari adi egon, ea badagoen han agertuko bide diren denak asmatzea.

Antzerkigintza

Esaera zaharrari uko eginez, Euskal Herriko antzerkigintzaren osasuna gero eta hobea dela esan daiteke. Genero eta era guztietako laurogeitik gorako jaialdi antolatzen dira urtero zazpi herrialdeetan. Sarea ekimenak festibal horietatik kanpoko emanaldi ugari bermatzen die antzerki-taldeei EAEn (helburua eskaintza hori antzoki eta talde gehiagori egiteak behar luke izan). Kultur Errotak, Korrikak eta beste hainbat egiturak formatu txikiko lanak bideratzen dituzte. Eusko Jaurlaritzak urtero banatzen dituen dirulaguntzak jasotzeko gero eta antzerki-talde gehiago aurkezten dira eta lanen kalitatea ere hobetzen ari da.

Hemen egiten den antzerkigintzaren kalitatea Euskal Herriko kanpo ateratzen ari diren taldeek lortzen duten arrakastak bermatzen du. Beraz, aurrean Espainiako Max Antzerki Sariak Bilbon banatu izana kalitate horren aitortze da.

Txalotzekoa Markeliñe taldeak Gijon herrian jaso dituen zuzendaritza, interpretazio eta musika aukeraketa onenaren sariak *Mambrú* lanagatik.

Maila profesionalean Ander Lipus bizkaitarra ari da halako ospea lortzen, bere proposamenak abangoardiakoak direlako eta normalean antzerkigintza komertzialari muzin egiten diolako. Izan ere, ekimen pertsonal honekin batera, antzerkiaren industriaren parean gertatzen ari dira, gure ustez, berririk interesgamenak. Antzerkigintza lanbi-

de baino gehiago afiziotzat hartzen duen teatre ro askok gatzeta eta piperra jartzen dio gaur egun herriz herriko giroari. Jarraian adibide batzuk emango ditugu.

Zarautzen Olerti etxean, antzezlanen irakurketa eta emanaldiak etengabeak dira urtean zehar (genero arekin loturiko erakusketak ere egiten dira), bertan biltzen diren *lau eroren* afizioari esker. Zein modu egokiagoa antzerkigile klasikoak ezagutzeko, urte osoan programa finko eta ugaria izatea baino.

Alfonso Sastre Kultur Elkarteak (ASKE) Donostian antolatzen dituen jardunaldiek (hitzaldiak, mahai-inguruak...) urtetik urtera interes handiagoa pizten dute.

Antzerki amateurra eta eskolako antzerkia gero eta arrakastatsukoak dira bai ikasle mailan eta bai Saretxoa izenez ezagun izan daitekeen zirkuituan ere. Tamalez, aurretik ez da modurik izan Azpeitiko Antzerki Topaketa normalizatuak ospatzeko, baina espero dezagun hitza bete eta Urolako herri horretako agintariak bi urteko etenaldiaren ondoren euskal antzerkigintzarentzat hain garrantzizkoak diren jardunaldi horiei berriro ere heltzea.

Oraingoz maila apala duten talde berriak ere sortzen ari dira, hainbat urtetan talde profesional berberak aritu eta gero. Lehorteari amaiera eman diote sortu berriak diren Dar Dar eta Kanpingags taldeak. Hainbat aktore, bide komertzialetik jo gabe, eta, beharbada, arrakasta baino nahiago dutenak beren apustu pertsonal eta gustuei jaramon egin, formatu txikiko lanak muntatzen hasi dira. Bide berriak jorratzen, Ramon Agirre aktorea. *Ondo esan beharko* lanean, Jose Ramon Senperena pianistaren laguntzarekin, musika, kantua eta interpretazioa batuz, oso proposamen pertsonala egin du. Kafe antzerkiaren bidetik jo dute beste aktore askok, beren burua enpresa bihurtuz (modu bakarra lan txikiak kaleratzeko gaur egun), eta emaitzak datorren urtean ikusiko dira. Antzerki eskoletatik sortzen diren talde berriek (Getxoko Antzerki Eskolako 96 Unicornios, kasu) argi pixka bat ekarri diote orain arte berri gutxi zituen arte alor honi.

Bilbon inizatiba interesgarria gauzatu da: eszenografia, musika eta antzerki munduko 60 bat artista bildu eta

«Drama Laborategia 2001» osatu dute. Eszena arteei bu-
ruzko eztabaida piztea da xedea.

Euskarazko antzerkigintza bultzatzeko asmoz, Donos-
tiako Udalak 1. Donostia Saria sortu du. Aurten Tanttaka
taldeak jaso du, *Ozeanoko pianista* lanarengatik. Ea halako
ideiei esker euskarazko antzerkigintzari garrantzi gehiago
ematen zaion.

Ongietorria Durangaldeko Antzerkide jaialdi berriari,
bai sortu berria delako eta bai programazio komertziala-
ren mugak gainditu nahi dituelako.

Kritiken artean, euskaraz aritzea ez dadila izan aitzai-
kia hutsa dirulaguntzak jasotzeko eta amaiera eman da-
kiola talde askok antzezlan bat prestatzerakoan izaten du-
ten irizpideari: antzezlan espainieraz muntatu (hiru bat
hilabete) eta gero, hilabete eskasean haren euskarazko or-
dina egitea (maiz samar estreinatu dira euskarazko ber-
tsioak pase oso bakar bat egin ondoren). Neurriak jorratu
beharko lirateke euskarazkoa bertsioa ez izan, eta, taldeent-
zat nahitaezko enbarazua izan beharrean, muntaketa be-
ra ere euskarazko bertsiotik has dadin. Orduan bai, or-
duan hitz egin ahal izango da euskal antzerkiaz.

Beste kritika bat sorkuntzari loturik dator. Ia ez da ezer
sortzen euskaraz (Serantes sarira espainierazko lanak baka-
rrik aurkeztu ziren), eta sari nagusietara dozena erdi lan
aurkeztea miraria dela pentsa daiteke. Arrazoia aurkitzea
oso gauza bihurria da, ez baitago erraza jakitea zein den
arazoaren iturburua: ez dela argitaratzen idazten ez delako,
edo ez dela idazten argitaratzen eta antzezten ez delako.
Baina Durangoko Liburu eta Disko Azokan ez da genero
honetako lan bat bera ere argitaratu. Hala ere, proiektu txi-
ki batzuk ere ari dira bideratzen arlo honetan. Alfonso Sas-
treekin berarekin loturik dagoen Hiru argialetxeak kalera-
tu baitu Ander Lipusen *8 olivetti poetiko* lana eta *Artez* aldiz-
kariak ere lan batzuk kaleratzeko asmo bera duelako.

Antzerkia unibertsitatera eraman nahi den honetan,
pozgarria litzateke, antzezlanen idazleak ere sortu edo tre-
batzeko eskolak ematea.

Kritikagarria da, hein berean, edo gutxienez penaga-
rria, euskara hutsean jarduten zuten taldeek ere hemen-

dik aurrera proposamen elebidunak egitea, bai euskal merkatua txikia delako, bai enpresa moduan bizirauteko eta bai laguntzak emateko baldintzen artean kanpora (Espainiara) eramateko modukoak izateko. Okerrena, talde horietakoren baten adierazpenak, horrela beren jardueran euskararen normalizazioa iritsi dela esanez. Itsu behar du, normalizatu den bakarra espainierazko jarduera dela ez ikusteko. Bego berriz ere euskarazko antzerkigintza mundu amateurrean.

Basauriko antzerki eskola itxi izana ere oso berri txarra izan da, batez ere arazoa lokalei buruzkoa denean. Udalaren aginduz Social antzokia utzi behar izanak eragin du eskola historiko honen desagerpena.

Hamaika antzezlan taularatu dira Irungo Antzerki Gaztearen Jaialdian. Gazteei lanbide honetan lehendabiziko urratsak egiten laguntzeko oso egokia da halako jaialdiak antolatzea, baina antzezlan horien artean bat bere ere euskaraz ez izatea kezkatzeko modukoa da.

Ipar Euskal Herrian ari dira gauzak berriz ere mugitzen. Urte hasieran Tehenta taldearen eskutik antzerkia, bertsoa eta kantua nahastu ziren *Izarren hautsa* muntaian. Xirrixti Mirrixti taldeak Pantzoa Irigarai antzerkigile eta aktoreak idatzitako *Lamintegiko laminak* estreinatu zuen. Egokia litzateke Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak horrelako muntaiak ere diruz lagunduko balitu, eta Sarearen bidez gutxienez Euskal Herri osora hedatzeko aukera izan dezaten.

Beste gutxi batzuen artean Olatz Beobidek eta Eneko Olasagastik azken urteotan mugaz bi aldeetan lan egin izana mugarri da egon den eten historikoa gainditzeko. Euskal Herria zeharkatu zuen Korrikaren harira sorturiko *Komeriaka* muntaia bide egokia izan zen Pirinioen alde bietako aktoreak Tentazioaren ekoizpen honetan biltzeko. Bide beretik etorri da, antza, Azika txotxongilo talde profesional berria (Lapurdi, Nafarroa Behereko eta Zuberoako lehendabiziko talde profesionala ote?), Ipar Euskal Herriko kideek osatua (Kukubiltxo taldearen itzalean) eta *Kontua kontu zan* lehendabiziko muntaia Pirinioen bi aldeetara aurkeztuko duena.

Artez aldizkaria

Bestalde, pozgarria da ia agenda moduan hasi zen *Artez* hilabetekaria 50. alera heldu izana aurten. Alez ale, emanaldien informazioa emateaz gain, arte eszenikoetako lan berrien aipamenak, elkarrizketak, azterlanak eta beste gai asko jorratuz jantziz joan da Elorrioko inguru emankorrean argia ikusi zuen aldizkari hau. Eta, horrela, lau urte luzetan, nahitaezko erreferentzia bilakatu da Euskal Herrian eszena gainean zer egiten den jakin nahi duen ororentzat. Esparru honetan zulo handia zegoen eta oso zaila zirudien era honetako informazioa ematen duen aldizkariak aurrera egiterik izateak, baina hileroko hitzordua txukun baino txukunago betetzen ari da. Zorionak, eta urte askotarako.

Euskal Museoa

Dozena bat urte itxita eman ondoren, konponketa lanak bukatu eta atea ireki ditu berriro Baionako Euskal Museoa. Han bildurik dauden altxor guztiak berriz ere ikusgai egoteak zinez poztu gaitu, Euskal Herriaren historia, ohitura eta tradizioen altxor handienetako bat biltzen baita bertan. Berri horrekin batera, Ipar Euskal Herriari buruzko hamaika artxibategi Pauetik Baionara ekarriak izango direla iragarri zuen Catherine Tasca Frantziako Kultura ministroak. Baiona Paueren satelitea bihurtzeko helburua izatearen beldur agertu ziren Jean Haritxelhar bezalako adituak, baina berria bere horretan oso modu positiboan baloratua izan zen. ¶